

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## 1222

*IRAGARKIA, 2022ko otsailaren 18koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Arratzua-Ubarrundia, Burgelu eta Barrundia udal-mugarteetan eta Gipuzkoako Leintz-Gatzaga udal-mugartean, Miritxa parke eolikorako alde zuzeneko administrazio-baimenaren eskaera.*

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Miritxa parke eolikorako aurkeztutako alde zuzeneko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Kokapena: Miritxa.
- Eskatzailea: Green Capital Development VII, S.L.U.
- Tartean dauden udal-mugarteak: Arratzua-Ubarrundia, Burgelu eta Barrundia (Araba) eta Leintz-Gatzaga (Gipuzkoa).
- Haize-sorgailuen kopurua: 6.
- Instalatu den potentzia gordina: 27 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonala	UTM x	UTM y
A	534627	4756812
B	535407	4756883
C	536300	4756599
D	536995	4755788
E	537112	4755480
F	537783	4755837
G	538017	4755395
H	536846	4754773
I	536559	4755528
J	536013	4756165
K	535352	4756375
L	534672	4756314

Horiguztia argitaratzen da, eta hogoieguneko epea ematen da, iragarkian 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoen plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 18a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,  
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.